

opusdei.org

# Lan esparrua Lituanian 2007

Udaran egiteko plan  
aberasgarri: beste lurraldeko  
beharrak ikusi eta ezinduak  
lagundu

2007 Ira 6

“Laguntzera gindoazen, baina askoz  
gehiago jaso dugu guk”. Horrela  
laburbiltzen du bere esperientzia  
Almudenak, Medikuntzako lehen  
kurtsoko ikasle batek, Goroabe  
Ikastetxe Nagusiak eta Isaba Gazte  
Elkarteak Klaipedan antolatutako

LITUANIA 2007 lan esparruan parte hartu eta gero.

Ekimen hau 16-23 urtetako neska gazteentzat zuzenduta dago. 100 adindu inguru bizi diren babes-etxe bat eta bi umezurztegi –60 haurrentzat bakoitza– zaintzea izan da beren lana.“Asiloan, ahal izan den neurrian, babes-etxearen egoera materiala egokitzen saiatu da – ia osasungarritasun ezaren mugara heltzen zen–, baina, batez ere, arreta pertsonala eman zaie adinduei” esaten du Sara de Castrok lan esparruaren koordinatzaileak.

“Bere kabuz baliatu ezin zirenei, higiene pertsonalari dagokien gauzetan laguntzen zitzaien: bainatzen, azazkalak mozten, pixoihalak aldatzen... edo sendaketa medikoak erraztu zaizkie. Horretaz gain, laguntza eman diegu, abestu eta entzun diegu...”.

Fatimak, Nafarroako Unibertsitatean Filologia eta Ikus-Entzuneko Komunikabideak ikastera doan batek, esaten du: “hasieran badirudi hizkuntza eragozpen handia izan behar duela, baina, egia esan, ez dugu lituaniera ezagutu behar izan, jende hura maitatzeko”. Annek, Batxilergo lehengo kurtsoa egiten duen ikasle donostiar batek dio, lan esparruaren gauzarik hunkigarriena dela “ezer gutxi egiten badiezu ere, baita begiradaren bidez eskertzen dizutela”.

Asiloaz gain, urritasun fisiko eta batez ere psikiko dituzten haurren umezurztegi bat zaindu da, baita beste umezurztegi bat 5-12 urtetako haurrentzat, abandonatuak gehienak. Irribarre egiteko eta helduengan konfiantza jartzeko ohitura galdu duten haur multzo bat aurkitu dute han boluntarioak. Katek, Irlandako neska batek dioenez “haietako batzuk tratu txarrak jaso

dituzte bere gurasoen aldetik eta hasieran ez da erraza izaten haiengana hurbiltzea”.

Pertsona hauen behar materialak arintzeko pertsona pribatu eta baita enpresa batzuen, Eroskirena adibidez, laguntza ekonomikoak erabili dira. Familia askok arropa eta jostailu ugari eman zituzten. Hori guztia kamioi batek dohain eramane zuen nazio eslaviarrerraino proiektuari laguntzearren. Kamioi horretan bertan sartu zen Amma Mutilvak eskainitako material geriatrikoa: aulki gurpildunak, makuluak, makilak, pixoihalak, maindireak, belakiak, etab.

Ez da inolaz proiektu itxia izan. Boluntario guztiak ados daude Maribelekin –Mendikuntzako ikaslea hau- “Lituania abiapuntua baizik ez dela, han ikasi duguna gauden lekuan erabiltzeko”. Horregatik, proiektuaren jarraipena momentu

honetatik bertatik hasiko gara  
prestatzen. Datorren uda  
zortzigarrena izango da.

---

pdf | document generated  
automatically from [https://opusdei.org/  
eu-es/article/lan-esparrua-  
lituanian-2007/](https://opusdei.org/eu-es/article/lan-esparrua-lituanian-2007/) (2025 Api 20)